



204. zenbakia

· OTSAILA 2021 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

**ARGITARATZAILEA AMETZA
KULTUR ELKARTEA**

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi,
Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu,
Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte
hartzen duzuenak, banatzaileak, etab...
Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Lurra.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Egilea: Tomas Goikoetxea

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 11an bidalia



Bertsoa
Joxe Jabier Elizalde

“

*Egunkarian heldu da...
Aldamiotik erori eta,*

*hil egin zen gizona.
Igeltsero zebilen.*

*Diotenez,
gehienez bi metrora.*

*“Zoritxarra” - dio jendeak-
“gizon zintzo, langile ona”.*

*Herrian dena berdin,
zakurrak, okina,
haurren algara...*

*Teilatuak zuri,
elurra, berriz mara-mara.*

*Emakume bat negarrez,
bihotza orratzez beteta.*

Bizitza edota Herioaren zaplada.

*Egunkarian heldu da,
arratsaldeko bostetan, hileta.*

”




Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



ETXEBIZITZA PROMOZIOA

18 ETXEBIZITZA **8** LOKAL KOMERTZIAL

- 
- 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean
 - Lokal komertzialak



Elizagibela
Promociones S.L.

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com
T. 643 466 998



Sorgin-ehizak eskualdea kolpatu zueneko

Asisko Urmeneta komikigile ezaguna Larraintzarren (Ultzama) izan zen urtarrilean, 'Sugarraren mende' bere azken lana aurkeztzen. Euskal Herrian sorgin-ehizak eta Inkiszioak izandako eragina bildu du liburuan. Zugarramurdin sorgintzat epaitu eta sutan erre zituztenei buruz asko entzun dugu, baina, ba al dakigu hemen, gure eskualdean, nola bizi izan zen garai ilun hura eta zenbat jende epaitu zuten? Galdera horri erantzun batzuk ematen saiatuko gara erreportaje honetan.

1515. eta 1616. urteen artean, sorginkeria aitzakia hartuta epaiketa eta salaketa ugari egon zen konkistatu berria zen Nafarroan. Urte latzak izan ziren, Errege Kontseiluak eta Logroñoko Inkiszioak purga zabala egin baitzuten Nafarroako mendialdean; Leitza eta Aresotik hasi eta Zaraitzu eta Erronkariraino, Larraun, Araitz, Odieta, Ultzama, Luzaide eta Auriztik pasatuz. Antzekotasun handiak zituzten kasuei gogortasun desberdineko zigorrak aplikatu zizkieten: 1507ko eta 1525eko errepresio bortitzetatik hasi –Inkiszioak aurrera eramandako lehen prozesua, Nafarroako 29 emakume erail zituen–, eta multa edo diru-zigorretaraino, Ultzaman gertatu bezala.

Anotzibar, bortizkeriaren lekuko

"Ultzama errekararen bi aldeetan, Iruñea eta Belate artean, toki askotan egon ziren sorginen aurkako salaketak eta epaiketak, baina 1575ean Anotzibarren gertatutakoa biziki krudela eta bortitza izan zen", azaldu zigun Asisko Urmenetak. Nafarroan gertatu ziren Inkiszio kasu gehienek kontrara, Anotzibarkoan herriko apaiza izan zen salaketa jarri zuena. "Apaizak akusatuak izaten ziren normalki Nafarroan, kleroa herritarren aldekoa baitzen gehienetan. Sorgin-ehizarekin oso kritikoak izan ziren herri askotan".

Aldiz, Pedro Etsain apaiza izan zen salatzailea Anotzibarren.

Joanes Olaguekoak eta Maria Larraintzarkoak berarengana jo eta herrian sorginak zeudela salatu zuten, prozesuari hasiera emanaz. Maria Joana eta Miguel Zubiri herritarrek izan ziren apostasiagatik, heresiagatik eta idolatriagatik salatuak. Maria Joanaren 10 eta 7 urteko bi ilobei deklarazioak hartu eta pertsona gehiago ere nahastu zituzten prozesuan: Mariato Xandua, 40 urteko herritarra, eta Rigerena etxeko Miguel Zubiriren emazte Graziana Iraizotz.

Kartzelan, sorginak zirela onarrezaten tortura latzak jaso zituzten. Maria Joana izan zen sententzia jasotzen lehena; urkamendian hiltzera kondenatu zuten. Gerora, Miguel Zubiri eta Mariato Xandua ere Takoneran hiltzera kondenatuko zituzten, garrote bil bidez. Bi horiek eta Graziana Iraizotz ez ziren heriotza zigorra jasotzera iritsi, dena den, lehenago kartzelan hil baitziren hirurak. "Torturez gain, baldintza oso txarretan bizi ziren espetxean: gosea, depresioa... jende asko hiltzen zen", zioen Urmenetak.

Lau herritar sorgintzat hartuak eta epaituak izan ziren Anotzibarren



Bi urteko dokumentazio lana egin du Asisko Urmenetak 'Sugarraren mende' liburu atera aurretik



Herri oso baten aurkako prozesua

"Florencio Idoatek lan ikaragarria egin zuen gai honen inguruko materiala biltzen, eta berak osatutako zenbait mapatan argi ikusten da non izan ziren ehiza prozesu latzenak: muga eratu berriarekin bat etortzen da, justuki", zioen Urmenetak. Gaztelak inbaditu eta gero bere mugak markatzeko behararekin lotzen du marrazkilariak garaiko sorgin-ehiza. "Sorginak beti belargileak edo antzeko lanak egiten zituztenak zirela iritsi zaigu, baina ez, ez zen horrela izan, sorginkeriagatik epaituen artean denetik baitzegoen: apaizak, epaileak, militarrek, ikazkinak, emaginak, marinela...". Herri oso baten aurkako prozesua izan zela argi du Urmenetak.

Baina, zergatik salatzen zituzten herritarrek? Anotzibarko Maria Joanaren kasuan, prozesuan hark kontatutakotik zenbait pista atera daitezke. Hain zuzen, epilepsia zuen: "Haurra zenean Urdazubira, Arrera eta Gulinako apaizarengana exorzismoak egitera eramana zuten behin baino gehiagotan, baina horietako batean ere ez zuten lortu bere eritasunarekin amaitzea", dio komikigileak. Horratx garai hartan bere krisiak sorginkeriatzat hartzeko ingurukoek izan zezaketen arrazoi posible bat. Baina, sorginkeriak baino, eritasun batek eraman izan zuen ziur asko Maria Joana heriotza zigorrera.

Beldurra eta salaketak Ultzama osoan

Anotzibarko gertaerarekin hunkituta gelditu ziren Nafarroako mendialdeko biztanleak, eta komisarioak berriz ere herrietara bidaliak izan zirenean beldurra azkar batean zabaldu zen. Ultzamara eta Anuera Ozkoidi batxilerra etorri zen, eta segituan jakin zuten hori sorgintzat markatuta zeuden herritarrek. Olagueko (Anue) Maria de Aniz 'Xopalda' zen horietako bat. Ostalaria zen bera, eta 'gaueko ez orduetan ibiltzea' eta ostatuko merendu batean bi pertsona pozoitzea egotzi zioten. Aurrerago jakin zen, ordea, ez zela pozoitzerik inon izan eta heriotza naturalez hil zirela ostatuko bi bezeroak.

Eskualdeko beste kasu entzutetsuenetakoak, Lizasoko (Ultzama) Santxo Iraizotz basteroarena eta Urritzolako Luxearenako nagusi zen Maria Grazia Beuntzarenak izan ziren. Azken hau sorgina zela eta bere arte txarrak Egozkuen, bere aita Gartzia Beuntzarengandik jaso zituela esaten zen. Bi horiez gain, Larraintzarko eta Eltsoko beste zenbait sorginez ere hitz egiten omen zen garaiotan.

Ultzamako sorginen inguruko beste istorio batek zioen hainbat testiguk, Urritzolatik Lizasora gaez zihoazela, hiru aldiz tiro

▼ Zugarramurdin erre zituzten ustezko sorginen omenez ekitaldi ugari egiten dira egun



egin behar izan zutela erreka ondoan zegoen sorgin andana gainera etorri zitzaielako. Hurrengo egunean, Egozkuen, Gartzia Beuntza zaurituta ikusi eta bezperako sorginetako bat zela salatu zuten. Haren alaba Maria Grazia Beuntzaz, senarrak esaten omen zuen paretetatik igotzen eta leihotik etxera sartzen ikusi zuela. Senarra bere gaixotasunaren ondorioz deliratzan ari zela ez zuten kontuan hartu. Alabak ere ama gaez katu itxuran paseatzen ikusi zuela esan zuen... hamaika kontu eta istorio fantastiko daude jasoak.

Ultzamako sorgin istorio eta salaketa guzti horiek, dena den, ez zuten Anotzibarkoek bezain amaiera latza izan. Hamar libranko isuna izan zen Lizasoko basteroarendako ezarri zuten isuna, eta gainontzeko guztiak absolutuak izan ziren.

Anotzibarko ihoteetan, sorgin-ehiza gogoan

Duela zenbait urte Iñigo Ibarra odietarrak Anotzibarko kasuaren inguruko informazioa bildu zuen liburuxka batean. Hortik gutxira, Anotzibarko ihoteetan 'inkisidorea' erretzen hasi ziren, eta iaz, lehen aldiz, gaiari buelta bat gehiago

eman eta antzerkitxo bat egin zuten herriko haur eta helduen artean. Anotzibarko istorioa berreskuratzeko eta ezagutarazteko asmoarekin daude bertako zenbait herritar, ikusiko dugu aurrerago nora iristen den kontua.



Tortura latzak jasan zituzten salatutakoek, sorginak zirela onar zezaten

Hileta usadioak

Zein da heriotzaren esanahia hildakoak ezkutatzen dituen, heriotzari gauza arrotz gisa begiratzen dion, hileta errituak ahazten dituen eta hil beharrari larri duraz begiratzen dion gaur egungo gizarte honetan?

Antzinako gure gizarteak, oraingoak ez bezala, heriotza pasabide bat eta prozesu natural bat bezala ikusten zuen. Gizarte hartan hildakoak 'bizirik' irauten zuen, errituen bidez bizi iraupena **bermatzen** zelako hilerriko bake isilean. Ikus ditzagun heriotzaren inguruko erritu horiek:



Antzinako hiletak ▲



• Baserri hurbileneko etxejaunaren etorrerarekin eta **hilotz**aren prestaketarekin hasten zen dena. Haren ardura normalean auzoko etxeakoandreraren batek hartzen zuen: **zenduaren** gorpua garbitu eta begiak itxi ondoren, beztitu eta eskuak **uztartuko** zizkion bular gainean eta gurutzea paratu bertan. Bien bitartean, ondoko etxejauna, normalean zenduak bertze inorekin baino harreman estuagoa zuen gizona, etxeako **zeregin**ez arduratuko zen: aziendak ohartaraziko zituen etxeako nagusiaren heriotzaz eta **zintzarriak** kenduko zizkien.

• Apaizak, berriz, ur bedeinkatuaz gorpua **zipriztindu** eta errespontsu bat errezatuko zuen. Ondoren, bertara bildutako lagun guztiek ere otoitz egin eta gorpua ur bedeinkatuaz zipriztinduko zuten erramu adar batekin.

• Aldi berean, etxeako edo auzoko emakumeren batek hil berria eskainiko zien erleei, jainko eta gizakien arteko mezulariei. Etxean, bitartean, leihoa zabaltzen zen eta teilatuan teila bat altxatzen omen zen arimari ateratzen uzteko, eta ispiluak eta armarriak, berriz, oihal beltz batez **estaltzen** ziren.

• Auzokideen egitekoa zen, **halaber**, zenduaren ohatzeko **lastaira** erretzea. Etxe barrenean senide eta auzokideak gaubeilan bildurik, zenduaren arimaren alde errezatzen zuten.



▲ Antzinako gizarteak prozesu natural bezala ikusten zuen heriotza

• Ondoren, apaiza buru, segizioa elizarantz abiatzen zen andabidetik, hau da, hildakoen bidetik. Bide hark garrantzi handia zeukan, berauxe baitzen etxea eta hilobiaren arteko lotura espiritual eta fisikoa. Auzoko kide guztiek errespetatzen zuten bide hura.

• Elizkizunak amaiturik segizioa berriro ere formatu eta hilerrirako bidea hartzen zen hil kanpainen soinu **goibela** lagun zutela, zenduaren sexu eta adinaren arabera doinua aldatuz. **Ehorzketa** amaituta **ahaideak** eta andariak zenduaren etxera joaten ziren bazkaltzera. Ohitura zen bazkari hura egur hezeaz prestatzea, horretarakoxe bereziki moztua.

• Heriotza inguratzen duten elementu materialen artean bi azpimarratzekoak dira: argizaiolak eta hartu-emanak edo meza-diru edo sariak. Lehena, giza formako **ohol** txiki apala, bere figura geometriko bitxiez dekoratua, argi eta garbi mintzo zaigu gure hileta errituetan suak eta argiak duten esanahi eta garrantziaz, gure **arbaso** zenduen biziraupenaren eta presentziaren presentziaren sinbolo gisa. Meza-diruak edo sariak, berriz, arimaren salbaziorako mezuak eta errespontsuak errezatzeko ematen zituzten.

Hiztegia

• **Uztartu:** lotu, gurutzatu

• **Zipriztindu:** busti, zirtatu

• **Antzinako:** aspaldiko, lehengo

• **Halaber:** modu berean, baita ere

• **Estaltzen:** tapatzen, ezkutatzen

• **Beztitu:** hil-atorra, jantzi

• **Zendu:** hildako

• **Bermatzen:** ziurtatzen, sendotzen

• **Ohol:** taula

• **Ahaide:** jendakiak, senideak

• **Aziendak:** abereak

• **Lastaira:** lastakia, matalaza, koltxoia

• **Zeregin:** lan, eginbehar

• **Arbaso:** asaba, aurreko, aitzineko

• **Goibela:** iluna, tristea, hitsa

• **Ehorzketa:** hilobiratze, lurperatze, lur-emate

• **Hilotza:** gorpua, hila



iritzia



Iñigo Aranbarri

Berria

Bi Reality

2021eko urtarrilak 17

Bi reality, ezer gutxi biek errealetik. Batean, beragatik espero dena egiten euskalduna. Eta ez da euskaraz egitea. Erne, eman begia pantailari gaur iluntzean: «Nataliak botaka egingo bigarren atalean. Zergatik?». Berriro ere, baserritarra ez baita deus baserritar izatera jarritako kaletarrik gabe. Ustezko lehian, betiereko kitscha betikoen lepotik. Eguna joan eta eguna etorri mamitzen diren imaginarioaz aritu da Karmen Zabaleta Twitterren, eta ez du Nataliaren gomitularria kezka: «Twitterren, eta bestela ere, sinbologia oso bat dago euskararen inguruan: baserria, aziendak, mendia... irudi horiek arrotzak dira hirian bizi den jendearentzat, hiri bateko periferiako langile batentzat. Ez da bere espazioa, ez eta bere errealtatea».

Bestean, bertako mendi ttattar eta pentze muskerrak aski ez eta haraindira daramate lehiakidea. Handiagoa behar da abentura eta handiagoa, hagitzez, konkistatu beharreko mundua. Horrexegatik dago simaur usaineko herri honetatik atera beharra, eta horrexegatik bozaten da hizkuntza txikia, besteak esango zukeen gisa, «jende gehiagorengana heltzeko». Behar da, ordea, Elkanorena jotzeko badarik ere, nondarrak garen agertu, mintzoagatik auzokoekin nahas ez gaitzaten. Bada ordezkatzeko horretan arazotxo bat, konpontzen zaila ez dena. Erabiliko ez duen elea baino sakonago, urrunago, gorago harrotuko du irabazleak. Juan Luis Zabalak jo du ituan osteria ere: «Norena da ikurrin hori? Nirea ez behintzat».

‘Haize berriak’ koordinadora jaio da, energia burujabetzaren alde

Nafarroako iparraldean bost parke eoliko eraiki nahi dituela jakinarazi zuen iaz Sacyr enpresak. Horietako batek, Nafarroa 1-2 parkeak, hain zuzen, gure eskualdean eragina izanen luke: Odietan, Anotzibarko Aldaun mendian eraikiko lituzkete hiru errota, eta Anuen ere, Etsainen, beste hiru. Hainbat eskualdetako herritarrek batu dira orain 'Haize berriak' koordinadoran.

Iaz Sacyr enpresak egitasmoaren berri eman zuenetik, herritar askok adierazi du desadostasuna, proiektuak ingurumenean izanen lukeen inpaktuagatik, batez ere. Anotzibarren, esaterako, Batzarre Orokorra deitu zuten proiektua aurkeztu zenean, eta bertan, aho betez erabaki zuten aurka egitea.

Azken hilabeteetan Nafarroako Gobernuak ekarpenak aurkeztu, sinadura bilketak abiatu eta hitzaldiak antolatu dituzte, eta oraingoan, pauso berri bat eman eta parke eoliko proiektuak eragiten dien zazpi eskualdeko herritarrek plataforma batean elkartu dira. Horien artean daude Eguesibar, Esteribar, Ezkabarte, Xulapain, Lizoain-Arriasgoiti, Odieta eta Olabarko bizilagunak.

Koordinadoraren sorreraren berri emateko zabaldu duten oharrean diotenez, “lurraldearekin eta bertan bizi diren biztanleekin jasagarria izanen den energia trantsizio baten alde egiteko” batu dira.



Basoak bizirik nahi dituztela aldarrikatu zuten Anotzibarko bizilagunek



Bizikletak konpontzeko gunea, Jauntsaratsen

Udaletxearen ezkerraldean, Autoendako estalpearen ondoan, metalezko poste urdin bat jarri du Udalak. Bada, bizikletak konpontzeko gune berria da hori.

Poste barruan hainbat tresna izanen dira: gurpilak puzteko gailuaz gain, bihurkina (destornilladorea), torx giltza sorta, allen giltza sorta, giltza finkoa, giltza zabalgarria (ingelesa) eta desmontagarriak ditu. Edozeinek erabiltzeko moduan izanen dira erreminta horiek guztiak.



▲ Bizikletak konpontzeko gunea


Obra, Basaburuko udaletxean

Otsailaren 1ean hasi ziren obrak eta hiru astez luzatuko dira. Udal bulegoko langileak gela handienara aldatu dira, eta bertan mostradore handi bat jarri dute.

Covid 19aren ondorioz langileak gela ezberdinetan banatu behar izan dira, eta horrek, nolabait, haien arteko komunikazioa oztopatu du. Horri konponbide bat bilatzeko helburuz obra egitea erabaki du Basaburuko udalak.

Irudian ikus dezakezuen planoan hobeki ulertuko duzue. Orain arte herritarrak hartzeko bulegoa zena, zinegotzien gela izanen da hemendik aurrera. Udal langileak, berriz, gela handienara aldatu dira. Bertan, paretan, erakuslehoi bat ireki dute, herritarrak hartzeko.

Gela honen ondoan izanen da udal idazkariaren gela. Bulegoa eta gela kristalezko ate batek konektatuko ditu, harremana errazteko.



▲ Basaburuko udaletxeko obraren planoak



Begoña Okiñena Etxeberria

ABOGADA



Landa legedian aditua

- Erretiro edo jubilazio eskaerak
- Lanerako ezintasunak
- Herentzien tramitazioak
- Zergen betetzeak
- Erregistroak
- Errekurtsoak

948 503 155

b.o.etxeberria@gmail.com



FONDO EUROPEO AGRÍCOLA DE DESARROLLO RURAL:
EUROPA INVIERTA EN LAS ZONAS RURALES

Nafarroako Gobernua
Landa Garapenerako, Ingurumeneko
eta Toki Administrazioako Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural,
Medio Ambiente y Administración Local



79 herritarrek hartu dute honezkero Covid 19aren aurkako txertoa Ultzamako Osasun Etxean

Urtarrilaren 18an hasi ziren Covid 19aren txertoa jartzen Ultzamako osasun etxean. 79 pertsonak jaso zuten orduan lehenengo dosia, eta bigarrena, otsailaren 8an dute jaso beharra. Gizarte Zerbitzueta eta osasun etxeko langileek, mendekotasun handiko herritarrek eta haiekin bizi eta zaintzen dituztenek jaso dute.

Micaela Oricain Landa izan zen lehena, eta Orzuri Beldarrain medikuak esan zigunez – amezti.eus-en elkarrizketa entzungai – oso pozik azaldu zen.

Jauntsarasko medikuak esan zigunez, eskualdean egoera ez da larria, nahiz eta kasuak pixkanaka gora doazen. Bigarren olatua lehenengoa baino okerragoa izan zen. Ikusteke dago hirugarren honetan zer gertatuko den.

Azken datuen arabera, pandemia hasi zenetik 155 kutsatu izan dira guztira Ultzama aldean. Tasari dagokionez, 1000 biztanleko 51,94koa da. Nafarroako batezbestekoaren azpitik dago, 69,72koa baita.



Micaela Oricain Landak jaso zuen Ultzaman lehen txertoa ▲



Ana Galarren bineta ▲



Estalpea eginen dute Iraizozko Ostatuaren aurrean

Kontzejuko kide den Leire Etxeberriak Esan Erran irratian adierazi zuenez, honezkero martxan da Ostatu atarian estalpe finkoa egiteko proiektua, eta baimenak eskuratu dituzte. Herriarena izanen da estalpea, eta beraz, herritarrek bertan ekimenak egiteko aukera izanen dute eraikitzen denean. Baina,

horrez gain, Ostatu laguntzeko aukera ere emanen du estalpeak. Ainara Mutuberria ultzamarra izanen da arkitektoa.

Iraizozkoaz gain, Auzan ere antzeko egitasmo bat martxan dutela jakinarazi digute.



Iraizozko Ostatua

Sahararako elikagaien bilketa egin da Izarpe Kanpinean

Pandemiaren ondorioz eta Sahara jasaten ari den gerra egoeratik, elikagaiak lortzeko arazoak dituzte errefuxiatu kanpamenduetan. Horregatik, elikagaien bilketa kanpaina martxan jarri du ANAS Sahararen Lagunen Nafarroako Elkarteak. Gure eskualdean ere kanpainarekin bat egin dute hainbat herritarrek, eta Izarpe Kanpineko elikagai bilketan 100 kilo janari bildu direla jakinarazi digute. Ondoko elikagaiak dira

jaso dituztenak: lekaleak, arroza, pasta, azukrea, arrai kontserbak, oliba olio, xanpuak, gelak eta xaboia. Azpimarratu dute txerrikirik gabeko produktuak izan beharra dutela, eta ezin dutela kristalezko potoetan ontzirituak izan.

Bestetik, janari bilketaz gain, norbaitek diru laguntza ekarpena egin nahiko balu ere badago aukera. Hauek dira diru aportazioak egiteko kontuak:



Elikagaiak eskuratzeko zailtasunak dituzte errefuxiatu kanpamenduetan

LABORAL KUTXA:
ES74 3035 0113 59 1130021437

RURAL KUTXA:
ES93 3008 0001 11 0700365729

BIZUM:
Telefonoa: 626 502 495

Diru-sartzearekin batera, kontzeptuan izena, abizenak eta NAN zenbakia adierazi beharra dira, datorren urteko errenta aitortzearen laguntzaren deskontua egiteko.



Abian da pala eta frontenis txapelketa

Gartzarongo Toki Alai Elkarteak eta Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak ez dago etenik. Pilota goxoko txapelketa amaituta, urtarilaren bukaeratik abian da pala eta frontenisekoa. Taldeak eta egutegia ezagutzera eman dituzte.

Inoiz baino gehiagok eman dute izena aurten. 17 bikotek lehen mailan, beste hainbestek bigarrean, eta zazpi frontenisean.

Behin-behineko egutegia ezagutzera eman dute eta amezti.eus-en aurkituko duzue. Urtarrilaren 29an abiatu zen txapelketa, eta apirilean bukatuko da. Aurreikusten denez, palako bigarren mailako finalaurrekoa martxoaren 26an izanen da eta lehen mailakoarena eta frontenisea, berriz, biharamunean. Eta finalak honela izanen dira: Bigarren mailako pala txapelketa apirilaren 9an eta biharamunean, aldiz, lehen mailakoarena eta frontenisea, biharamunean, hilaren 10ean. Hala ere, pandemia egoerak aldaketak eragin ditzake, pilota goxoko txapelketan gertatu bezala.



Pala txapelketa Gartzaronen, otsailaren 6ko partidetakoa bat



Txapelketa, Gartzaronen



Ainhoa Iraizotz eltsoarra, Euskadiko lokotx bilketan txapeldun

Ilbeltzaren 16ean Abadiñoko Matiena auzoan jokatu zen Euskadiko lokotx biltze txapelketa. Lau emakumezko hartu zuten parte bertan: Maider Etxezabalek, Zuriñe Frutosek, Maika Ariztegik eta Ainhoa Iraizotz ultzamarrak. Iaz segundo gutxigatik txapela eskuratzerik ez zuen lortu Iraizotzek, baina aurtengoan bai, txapeldun suertatu da eltsoarra.

Hori gutxi balitz, hurrengo egunean, ilbeltzaren 17an, Lekunberrin jokatu zen trontza txapelketa mistoan ere txapeldun suertatu zen, Josetxo Barberenarekin batera. Emaiza bikainak ari da lortzen kirolari gaztea. Zorionak Pulunpeko kideen partetik!



Ainhoa Iraizotz, txapela jarrita Abadiñon



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Aizarotz,

galgo leku

Galgo bat hartu du Marta Uhartek Aizarotzen

Iturriaren arabera kopurua oso ezberdina da, eta ezin ziurtasun osoz jakin zein den zuzena. Dena den, arazoa ezin da ukatu: urtero txakur ugari abandonatzen da, eta horietako asko galgo arrazakoak izaten dira. Ez du beti loturarik izanen, baina ehizarako eta lasterketetarako onak direnez, errentagarriak izateari uzten diotenean abandonatu edo hil egiten dituzte askotan. Horregatik, Galgo Leku elkarte bizkaitarra bezalako asko ari dira galgoak erreskatatzen. Haiekin elkarlanean hartu du galgo bat etxean Marta Uharte Aizarozko herritarrek.

Urtero milaka txakur abandonatzen dira, edozein arrazatakoak, batzuk beren jabeen ustez ehizarako balio ez dutelako, eta beste batzuk kapritxo izateari utzi diotelako. Horietatik asko galgoak izaten dira, beren arraza bereziarengatik. Eta horregatik sortu dira arraza horietako txakurrak erreskatatzen espezializatu diren elkarteak. Galgo Leku da horietako bat. Haiekin jarri zen kontaktuan Aizarozko Marta Uharte.

Hain zuzen, otsailean izaten da galgo gehien erreskatatzen den garaia, zenbait elkarteren arabera. Ehiza txikirako erabiltzen den txakur arraza da, erbiak ehizatzeo, batez ere. Orduan bukatzen da denboraldia.

Oso azkar egin dezakete laster galgoek, eta ehizarako bakarrik ez, galgo lasterketarako ere erabiltzen dira. Kasu horretan ere, sasoi onenean egoteari eta jabeendako errentagarriak izateari uzten diotenean, abandonatu egiten dituzte.

Kopuruak, zalentza ugari

Urtero polemika sortzen du txakur abandonatuen kopuruak. Erreskate elkarteek eta talde animalistek Espainiako estatuan 50.000 eta 60.000 galgo abandonatzen edo hiltzen direla diote. Eta hori dio Galgo Leku elkarteak ere bere webgunean. Nondik ateratzen da zifra hori? Bada, Espainiako

Galgo Federazioak 200.000 txakur daudela kalkulatu du, eta kopuru hori hartuta --eta galgo baten bizi aktiboa batez beste lau urtekoa izanik--, urtean 50.000 galgok errentagarri izateari uzten diotela kalkulatu dute elkarteek.

Bitartean, Guardia Zibilaren unitatea den Sepronak (Servicio de Protección de la Naturaleza) 2018an, esate baterako, 172 ehiza txakur erreskatatu zituen, horietatik 52 galgo. 2017an, berriz, erreskatatuen artean 61 galgo izan ziren eta 46 beste arrazatakoak.

Sepronako datuak oso urrun daude elkarteek ematen dituztenetatik, eta azken horien ustez, salaketa bidez jasotzen diren kasuak soilik kontatzen direlako gertatzen da hori. Horrela, beste kasu askok ihes egiten dizkio. Baina Guardia Zibilak edo Fundación Affinityk ematen duen kopurutik ere asko aldentzen dira elkarteek nahiz Sepronakoenak. Fundazio horren azken txostenaren arabera, 2019an 183.103 txakur abandonatu ziren, eta horietatik %11,6 ehiza garaia bukaeran. Aipatzen diren abandonuen 13 arrazoen artean hirugarrena da ehiza garaia bukaerarena. Bestalde, Guardia Zibilak, urtero 100.000 txakur abandonatzen direla kalkulatu du, horietatik %10 ehizakoak.





MARTA UHARTE ETA LEIA BISITATU GENITUEN ETXEAN

Nondik sortu zitzaizun Leia hartzeko ideia?

Hemen herrian bi galgo bizi dira, txikiak zirenetik ezagutzen ditut, eta asko gustatu izan zaizkit beti. Orain, pandemian, sozializatzea mugatuta dugun honetan, etxean denbora gehiago ematen dut eta txakur bat faltan botatzen nuen. Iaz, Ortzi, nire betiko txakurra hil baitzitzaidan 16 urtetan. Txakur bat epe luzean mantentzeak, ordea, diru asko eta arreta handia eskatzen du. Luzera begira jarrita, ez dut nire burua prest ikusten horretarako, baina epe motzera bai. Horrela, harreraren hartzea pentsatu nuen. Interneten begiratu eta galgoleku.org agertu zitzaidan.

Eta zer egin behar da txakur edo galgo bat harreraren hartzen denean?

Etxean duzun bitartean hezi egiten duzu, eta elikadura edo osasun arazoak baditu albaitarira eramaten duzu -horren gastuak elkarteak ordaintzen ditu, norberak soilik janariarena hartzen du bere gain-. Hiru eta sei hilabete artekoa izaten da harreraren iraupena. Bitarte horretan, adopzio familia bat bilatzeko prozedura bat dago, familiak txakurrarekin bat egiten duela eta haien bizimodua animalia-erendako egokia dela baieztatu behar dugu. Hori

galgoa harreraren hartu duenak erabaki behar du, kasu honetan nik. Bere garapena ikusten dut egunero, Leia adibidez beste txakurrekin oso harreman ona duela ikusi dut, oso lagunartekoa dela, alaia... lastan asko eskatzen dituela ere sumatu dut, eta horrekin kontuz ibili behar da, galgoek banandu ondorengo antsietatea garatzeko joera izan dezaketelako. Orain, familia bat ezagutzen ari naiz eta ikusi beharko dut Leia adoptatzeko egokia den.



Esne behiak kendu eta haragitarakoak jarri ditu Erbitik orain ▲

Zein da Leiaren historia?


Leiak bost urte ditu. Colmenar Viejotik, Madrildik, etorri da. Klean bizi zen eta Galgo Lekuk Madrildik Kantabriara eraman zuen. Niri tokatu zitzaidan izena jartzea, familiaren eta lagunen artean galdetu nuen, baina Leia izan zen bururatu zitzaidan lehenengoa. Star Wars zalea naiz eta iaz Carrie Fisher aktorea hil zenez -pelikulan Leia izena zuena-- bere omenez jarri nion, baita gure Leiari printzesa itxura ere hartzen niolako, oso dotorea baita (barreak).

Norbaitek galgo bat harreraren hartzeko interesa balu, zer egin beharko luke?

Webgunean ikusi nuen kontaktua, nor nintzen eta galgo bat harreraren zergatik hartu nahi nuen azalduz idatzi nien. Berehala deitu zidaten eta abendu hasieran harremanetan jarri ginen. Nafarroan Galgo Lekurekin txakur bat harreraren hartu duen bigarrena naiz. Beno, orain bakarra, beste emakumeak azkenean adoptatu egin baititu harreraren hartutako bi galgoak. Batek baino gehiagok galdetu dit ea onena ez ote litzatekeen ni Leiarekin geratzeko. Baina esan dudanez, momentu honetan, luzera begira, ezingo nioke behar duen guztia eman. Dena dela, egia da harreraren hartzen duenak adoptatzeko lehentasuna duela. Adoptatuz gero albaitariaren gastuak ordaindu behar dira, 200 euro inguru izan ohi dira.

Galgo Leku elkarteak

Euskal Autonomi Erkidegoan sortu zen eta, ondoren, bertako herritarren laguntzarekin zabalduz joan da: Kantabrian, Madrilan, Alacanten eta Nafarroan ere aritzen da. **Haien webgunean, galgoleku.org,**







“Hemen, herri txiki batean, aske bizi gara”

Eskualdeko herriak husten ari diren eta biztanleria zahartzen doan bitartean, Oskotzek hiru herritar berri jaso ditu. 25 urteko hiru lagun dira, eta Martixenean alokairuan bizi dira urritik. Beñat Arregi eta Urki Gortadi Oronoz-Mugairikoak dira, lehena elektrikaria da Lekunberriko fabrika batean, eta bigarrenak ostalaritzan egiten du lan, baina ERTEn dago orain. Jabi Lezaun da hirugarrena, Iruñekoa, eta Nafarroako Ospitaleko Zaintza Intentsiboetako Unitatean dihardu berak: “Etxeko heroia dugu, logelatik ateratzen den bakoitzean txalotzen dugu” esan digu barre artean Lanbide Heziketako ziklo batean ezagutu zuen Gortadik. Oskotzen, orain arte haiendako ezezaguna zen herrian, bilatzen zutena aurkitu dutela diote, baina pandemia pasatzeko zain daude, jende berria ezagutu nahi baitute eta horrela ezinezkoa baitzaie.

• OSKOTZ EZAGUTZEN AL ZENUTEN?

Guztiak batera: Ez.

Urki: Hemen amaitzeko arrazoi nagusia zera zen, haiek Iruñetik eta Lekunberritik gertu izan nahi zuten, eta ni baserri batean bizi nintzenez, Baztanen, handik atera

nahi nuen pixka bat. Azkenean, nahiz eta 60 biztanle besterik ez izan, niretzako zibilizaziotik gertuko toki bat da Oskotz, Iruñetik hurbil...

Jabi: Horrela bukatu genuen hemen, eta terraza honek guztiz konbentzitu gintuen! (barreak)

Urki: Eta gainera jende berria ezagutu nahi genuen, herri batetik etorriak hemengo giroa gustatuko zitzaigulakoan... baina egia esanda ez dugu sobera jende ezagutu (barreak).

Beñat: Egungo egoerak ere ez du batere laguntzen, ostatuak hertsita egon dira, elkarteak ere bai... hurbileko bizilagunak besterik ez ditugu ezagutu.

• EZ DUZUE JENDE ASKOEZAGUTU ORAINDIK, BAINA OSKOTZEN ONGI HARTU ZAITUZTETE?

Beñat: Bai. Adibidez, Joxe dugu auzokide, eta artista da!

Jabi: Bai, nik uste dut ilusioa egiten duela herrian gaztetxo batzuk bizitzera etortzeak. Aire freskoa ekartzeko.

Urki: Uste dugu, baina ez digute esan... (barreak)

Beñat: Jabi eta biok behin korrika egitera joanginen Beuntzaraino, eta han galdetzen ziguten: “Oskotzko granjan lanean ari zarete?”. Lan Iruñean eta Lekunberrian egiten dugula esan genienean harrituta galdetzen ziguten: “Eta Oskotza etorri zarete?”. Harriduraz bai, baina ilusioz ere esaten zuten.



Ezk-esk. Beñat Arregi, Jabi Lezaun eta Urki Gortadi



Kontatu ziguten zenbat gazte ziren lehen hemen, etxe bakoitzean 10 seme-alaba zirela, eta nola orain husten ari diren herriak.

• ETA, BAZTANDARRAK IZANDA, ZERGATIK EZ HAN GELDITU?

Urki: Beno, bizitza osoa eman dugu Baztanen, baina jende berria ezagutu nahi genuen, gure lagun sarea zabaldu. Hemen Jabik baditu bere lagunak...

Beñat: Aldaketa pixka bat ere bilatzen genuen.

Jabi: Nolabait zuek hirira pixka bat hurbildu nahi zenuten eta nik kontrakoa, hiritik aldendu.

Beñat: Bai, eta oreka hori opatu dugu. Hiria ez da, baina hiritik gertu gaude, segituan Berriozaren baikaude.

• ERRAZ LORTU AL ZENUTEN ETXEA? ASKOTAN EZ BAITAGO AUKERA HANDIRIK...

Beñat: Horrelako herrietan etxe asko hutsik daude, baina asko ez daude alokatzeko eta bizitzeko moldatuta. Gehienetan ahoz aho egiten dira gauzak. Guk interneten bilatu genuen, eta ez da asko ikusten, ez. Eta hori pena da, etxe asko hutsik baina alokatzeko aukerarik ez izatea. Ez bakarrik hemen, Baztanen ere hala gertatzen da.

Urki: Beharbada herri txikietan ematen den mesfidantza puntu horrek ere badu eragin pixka bat... kanpoko norbait etortzea...

Jabi: Bai, batzuetan beldur pixka bat ere eman dezake, ezta? Lagunei ere esan genien, alokatzeko baserriren bat edo ezagutzen bazuten, abisatzeko. Herri txiki batera etorri gero, argi genuen ez ginela pisu batean sartuko, etxe batean bizi nahi genuela.

• GAZTEOK BIZI DUTEN EZEGONKORTASUN EGOERA HONETAN... MERKEAGOA AL DA HERRI BATEAN BIZITZEA? HORI AUKERA BAT IZAN AL DAITEKE HAIENTZAT?

Beñat: Proportzioan, bai, merkeagoa da. Iruñean prezioak neurritz kanpo daude, etxe honek berak Iruñean ez dakit zenbat balioko lukeen! Ordaintzen duguna adina ordainduko genuke gela bakarreko "pisu" bategatik. Egia da han autorik ez duzula behar, erosoagoa dela, hemen kotxea behar duzu edozein gauzatarako...

Urki: Bestalde han, hirian, etxetik atera eta segituan gastatzen hasten zara. Aisialdia ere garestiagoa da. Hemen, adibidez, lasterka egitera edo frontoian jolastera joan zaitezke. Zentzu horretan, hemen askeagoak gara.

Jabi: Bai, ez zaude diruari horren lotuta, ezta?

Urki: Ezetz uste dut nik. Hirian ezin zara etxetik atera dirurik gabe. Agian ohitura kontua da... herritik kanpo gutxi atera gara eta hirian estimulu gehiegi izaten ditugu! (barreak).

• ETA HEMEN ZER EGITEN DUZUE EGUNEROKOAN?

Beñat: Lasterka egitera joaten gara, palan aritzen gara, eguraldi ona badago askotan Etxalekura oinez edo lasterka joan, han frontoian jolastu eta gero buelta egiten dugu.

Jabi: Tarteka Aroztegiko kanpinera ere joaten gara, baita Latasara ere, Lekunberriko Printza gaztetxera...

Urki: Jabiri bertsolaritza ere gustatzen zaio eta saiatzen da guri ere hori zabaltzen... denetatik pixka bat egiten dugu eta ongi pasatzen dugu.

Beñat: Eskalatzeraz ere joaten gara.

• AURKITU DUZUE BILATZEN ZENUTENA?

Jabi: Nik, behintzat, bai.

Urki: Puntu anitzetan, bai.

Beñat: Bai, baina izaten ahal zen hobe ere nire ustez. Egoera ez da onena izan. Dena den, aldi berean, egoera berak gehiago izorratuko gintuen Iruñean, hemen baino. Hemen askoz ere askeagoak gara.

Urki: Egia esanda, urritik gaude hemengo gazteek atea noiz joko diguten esperoan, ilusioz (barreak). Baina ez da gertatu, ez... edo bestela, bizilagunak, bizkotxoarekin etortzeko... (barre gehiago).

• ANEKDOTARIK IZAN AL DUZUE?

Jabi: Kontatuko dugu edo ez? (barreak, guztiok baietz egiten dute buruarekin). Kontua da, behean badugula garaje bat, eta lehenengo astean kotxeak sartzen genituen bertan. Baina ez dago asfaltatuta, belarra da, eta egun horietan euri asko bota zuenez kotxeko gurrpilak irristatzen ziren. Egun batean ni furgoneta ezin atera nenbilela, gure bizilagun jatorra, Joxe, laguntzera etorri zen, eta eskerrak! Egurra jartzeko esan zigun, bultzatzen ibili ginen... eta ezin atera! Hamaika gauzeekin saiatsu eta gero, esan zigun: "Hemendik ordu erdira bizilaguna etorriko da Pascualiarekin". Eta nik, hiritar inoxenteak: "Zein da Pascuali, ba?". Denok esan zidaten: "Pascuali traktore bat da eta!" (barreak).

Beñat: Pascuali traktore marka bat da.

Urki: Joxek ez zuen ezer esan baina auskalo zer pentsatuko zuen!



Eskulangileak eta bertze

Azkeneko Pulunpen, Lizason nekazalgoaz at bizi zirenak aipatu genituen. Eta ez ziren gutxi. Gainerako herrietan ez ziren hainbertze, hurbilik ere! Nolanahi dela, Ultzaman 1886. urtean ageri diren eskulangintza guzien zerrenda aterako dugu:

Arropa eta oinetakoen egileak:

Zapatariak
Espartzingileak
Ehuntzaleak
Sastreak
Joskinak

Konstrukzioko ofizioak

Harginak
Kisuskilak
Zurginak

Janariak eta abar

Dendariak
Txokolateroak (Txokolatero gehienak argizarigileak ere izaten ziren)
Okinak
Estanko dendariak

Bertze zerbitzu batzuk

Arotzak. Ia herri guzietan izaten ziten arotzak.

Errotariak. Ia herri gehienetan izaten zen errota. Ugaldea zen tokietan, jakina. Errota ez zuten

herriek aldamenekoarekin edo, elkarrekin izaten zuten errota.
Motxaleak. Bakarren bat ikusi dut, Auzan noski.

Garraioa

Mandazainak. Garraioa mandoz egiten zutenak.

Itzaia. Batez ere idiekin gurdiz edo galeraz garraioa egiten zutenak.

Bastagileak (bat topatu dut. Jakina, errepideak egitean, mandazainak bukatuz joan ziren eta lanbide hau ere gainbehera zetorren ordurako) Eta gero, bertze hau, *Arzonero bat bertze herri batean. Bastagilea izanen da ia seguru.*

Gurdi egileak. Gurdiak eta galerak egiten zituztenak

Garagar saltzailea. Bat topatu dut. Jakina, abreei, zamariei emateko behar izaten zen garagarra. Zaldarea du izena abreei emateko janari horrek: Zaldi alea, alegia. Jendeak, orain, goizez, alea edo pikorra jateko ohitura hartu duen honetan, elikagai hau **zaldarea** izen politarekin bataiatzea ez zait batere gaizki iruditzen. Nik beti zaldarea deitzen diot. Ja, ja, ja!

Oihanetako lana

-Ikazkinak. Txondorrean egurra egosi eta ikatza egiten zutenak

-Mendi mutilak: batez ere udan, aizkoraz eta zerraz aritzen ziren. Gainera, oraindik ere garai hartan, enborrak oihanean zerratzen ziren, zurak eta oholak egiteko. 1886. urterako langintza hau beheraka hasiko zen, XX. mendean bukatu artio (Erroldan ez dut mendi-mutil edo antzeko ofiziodunik ikusi, baina bai bazirela eta ez gutxi!)

Zerbitzu batzuk

Ostalaria. Herri guzietan izaten zen ostalaria, baina denak ez ziren berdinak, ezta hurririk ere. Herri ttikienetako ostalduak ez zuten bizitzeko ematen.

Postaria: Ultzaman bat baino gehiago izaten zen.

Jornaleroak, peoiak. Gure ustearen kontra, paperetan behintzat, peoi gutxi ageri da. Nolanahi dela, peoigintzan aritzen zela jendea dudarik ez dago. Aunitzetan, etxeko nekazal lur puxkarekin aski ez, eta aldika auzo-etxeetara joan beharko zuten aunitzek. Bertzalde, maistarrak nagusiarendako ari behar izaten zuten maiz samar, uza biltzerakoan edo jorrakoan, erraterako.

Artzaia. Etxe frankotan, artaldea zutenetan, artzaia izaten zen. Eta hauetako aunitz **artxaikoak** ziren, hots, mutiko gazteak.

Hona bertze ofizio batzuk aipatu dugun Erroldan ageri ez direnak:

Zamargin edo **zamargileak**
Sarriaila egileak

Isasgileak. Isatsak egiten zituzten.

Arrantzaleak (Ihabenen)

Ahuntzaiak eta **unaiak** herri frankotan izaten ziren (Ultzamako erroldan ez dut horrelakorik sumatu, baina seguru bazirela)

Uztargileak: uztarriak egiten zituztenak.



Txurdan



Auzako aroztegiari mandoa ferratzen (Romero Aizpuruak emana)



OHARRAK:

Emakumeak: Emakumeen lana joskintza, ostalaritza eta horrelako gauzak ziren. Horietaz landa, bertze lanbide batzuetan ere laguntzen zuten.

Emakumeak nekazaritzan, ez dugu erranen gizonak adina aritzen zirenik, baina latz aritzen zirela bai. Alargundu eta nekazalgoarekin segitzen zutenean, "nekazaria" deitzen zieten paperetan, Ultzaman, baina ez hala Basaburuan, "ocupaciones de su sexo" jartzen zuten Basaburuan.



▲ Vulcanoren sutegia. Ezkerrekoa Apolo jainkoa da zerbait azaltzen Vulcanoren sutegikoei, Vulcano eta bere lagunei. Denak belarriak erne: batek ezin-sinetsia, besteak harridura... denak ere jakin-minez. (Velazquez pintore-maisua deituarena)

Medikuak eta albaitariak

Aspaldikoak dira herri hauetan jendea etaazienda sendatzeko lanbideak. Udal guzietan izaten ziren. Jendea sendatzeko lanbideak XIX. mendean, bi izaten ziren: **profesor de medicina** deitua eta **zirujaua (cirujano)** Orain lehenari familia-medikua deitzen diogu eta bigarrenari erizaina.

Zirujaua bigarren mailako medikua izaten zen, erizain gisakoa. Eta askoz ere lehenago **barberak** izaten ziren. **Barbera** entzutean askori arrotza egiten zaie. Jakina, garai batean bizargile edo bizarra kentzen zuenak erizain lana ere berekin zuen. **Barbera**, Iparraldean eta Nafarroa guzian ibiltzen zen hitza zen. Hortik, errate baterako, hemengo herri aunitzetan barberaren etxea, **Barberenea** deituak, eta ez dira gutxi: Lantzen hor dugu **Barbernia**, Berueten **Barbonea**, eta Eguaratsen, Gelbentzun eta Ostitzen ere bai. Eta Ultzaman ez? Bai. Ultzaman ere bada **Barbenia**, Lizason, nahiz bere

Emakume ikazkinak:

Emakumeak nekazaritzan aritzea arrunta dugu, baina oihanean? Hori zailagoa da, nahiz paperetan ikusi izan dudana bat, Erason, Fermina Goñi Igoa, sortzez muskiztarra, alarguna, 45 urtekoa eta Erason bizi zena, ikazkina. Beharko familia aurrera ateratzeko, zerbaiti jo behar!

77 urtetan hil zen emakume bizkor hau Etxalekun 1886an.

Eta Auzako Alkoborroko bordako Micaela Ziaurritz, Antonio bertsolariaren alaba, senarrarekin batera ibiltzen omen zen oihanean, edozeintan.

Hiztegitxo, alfabetikoki eratuak:

Aditua: Entendido

Ahuntzaia eta unaia: Etxeetakoazienda, ahuntza edo abelgorriak bildu, eta herriko larretan zaintzen zituen. Erdaraz dulero.

Alea=pikorra (gurean pikorra)

Arotza: herrero (Gipuzkoan zurgina esan beharrean arotza esaten dute)

Arrotza: extraño.

Basta=Pasta: Baste. Abreei gainean jartzen zaien tramankulua, karga eroso eraman dezaten.

Ehuntzalea=Ehulea: Tejedor. Gure alderdian ehuntzalea ibiltzen da.

Enborra=trunkua. Dena dela, gurean enborra trunku lodi eta zakarrari esaten zaio.

Garagarra: cebada

Garraioa, karrotoa: transporte

Hots: es decir.

Ile-apaintzailea: peluquero

Isasgilea: isatsak egiten dituen. Escobero

Itzaia: idiak gidatzen dituen bere akuiluarekin.

Joskina= modista. Dendaria ere ibiltzen da joskina bezala: "Donostiako hiru damatxo, Erreterian **dendari**..."

Kisuskila: albañil

Motxalea: esquilador. Batez ere astoak eta mandoak mozteko. Jitoak ibiltzen ziren maizenik.

Mendi mutilak=oihan mutilak. Arbolak botatzen aritzen zirenak edo direnak

Okina: panadero. Hortik Okiñena deitura. Gure aitaxi-amatxik ibiltzen zuten hitz hau. Zergatik guk ez?

Postaria: cartero

Sarraila=Cerraja

Uzta: cosecha.

Zamargina: zamarrak egiten dituen, eta bertze larruzko zenbait gauza (hede, kopetako...)



Ilargiaren egutegi biodinamikoa

Baratzeko esperimentuak ez dira beti ongi ateratzen...

ARGIA aldizkariak eta Usurbilgo Alkartasuna kooperatibak urtero ateratzen dute baratzeko lanei eskainitako ilargiaren egutegi biodinamikoa, eta bertan, esperimentu bat proposatzen diete herritarrei: egutegiko hiru egun konkretutan patata ereinez, ilargiak, eguzkiak, planetek eta konstelazioek baratzean zein eragin duten aztertzea. Ihabengo (Basaburua) Bizieneakoek proba egin zuten iaz, eta egiari zor, esperimentuak ez zizkien esperotako emaitzak eman.

Eskualdeko etxe askotan egonen da zintzilikatuta segur aski ilargiaren egutegi biodinamikoa. Gauza ezaguna da ilargiaren fase desberdinek eragina dutela baratzean –eta beste gauza askotan–, baina, ba al zenekiten Maria Thun-en egutegi biodinamikoak ilargiaren faseez harago, beste planeten eta konstelazioen eraginaren informazioa ere jasotzen duela? Egutegi horretan lan bakoitzerako egunak bost talde desberdinetan sailkatzen dira: marra gorritz fruituak erein eta landatzeko egun aproposak, marroiz sustraietak, urdinez hostoenak eta horiz loreenak. Marra zuri-beltza duten egunak, berriz, desagokiak dira baratzeko edozein lanetarako.

Bada, hauxe izan zen iazko egutegian egin zuten proposamena: maiatzaren 2an –fruitu eguna zen, eta beraz, patatak ereiteko ez zen egokiena–, maiatzaren 4an –sustrai eguna zen, berez, patata ereiteko egokiena–, eta maiatzaren 5ean –baratzeko edozein lanetarako oso desagokia zen eguna– lurreko zati berean patatak ereitea. “Iaz, konfinamendua zela eta, denbora dezente izan genuen baratzean fundamentua egiteko, eta egutegian proposatzen zen bezalaxe, hiru egun horietan, eguerdiko 12:00etan, hamabosna zulo egin eta Arabako patata erein genuen”, azaldu digu Bizieneako Arantxa Agirreurretak. Hiru hilabete itxoin beharko zituzten esperimentuko emaitzak jasotzeko,

hau da, uztarik handiena egutegiko egun egokienetan ereindakotik ateratzen ote zuten egiaztatzeko.

• Emaitza guztiz aldrebesak

Ihabengo Bizieneakoez gain, Oñatiko Akelenea baserrikoek ere parte hartu zuten iazko esperimentuan, eta bietan ere emaitza oso harrigarriak utzi zituen probak. Izan ere, sustrai eguneko emaitzak bi tokietan txarrenak izan ziren, patata kantitate txikiena atera zuten bi baserriek ustez egun egokiena zenean ereindakotik. Alkartasuna Kooperatibako kideak gehien harritu zituen emaitza, dena den, Bizieneako esperimentuan lan guztietarako desagokia zen egunean diferentzia handiz uztarik onenajaso izana. “Ulertezinagoa da Ihabengo egun ezegokiko emaitza ona. Horrek bai ez duela azalpenik. Beraz, aztertzen jarraitzea komeni zaigu eta arrazoiak aurkitzea”, diote 2021eko egutegian.

Bizieneakoek ere harriduraz bizi izan dute esperimentuaren emaitza. “Emaitza oso arraroak izan ziren, baina behintzat patata jaso genuen, eta ez kardoa!”, zioten barrez. Hori bai, 2021. honetako egutegian proposatzen dena berriz ere egingen dutela diote. Ea aurtengoan emaitza hobeak lortzen dituzten! Zuek ere zuen baratzetan egin dezakezue proba...



Elurrez estalita topatu genuen Bizieneako baratzea.
Argazkian, Arantxa Agirreurreta

Logo eta estudio berriarekin eman diote ongi etorria urteari Esan Erran Irratian

Askok inoiz baino gogo gehiago izango zituzten 2020. urtea agurtzeko. Esan Erran irratan logo eta estudio berriarekin eman nahi izan diogu ongi etorria 2021ari. Logoa Altsasuko Miren Arregi Olivenza diseinatzaileak egin digu, eta estudioa guk geuk berritu dugu, kolaboratzailearen baten laguntzarekin.

• Logo berria

Esan bezala, Miren Arregi Olivenzak diseinatu digu logo berria. Diseinuaren produkzioa eta kudeaketa ikasten ari da Iruñean; eta, aurretik, Diseinua eta Edizioa ikasi zuen Urnietan. Altsasukoa, eta Guaixen aritutakoa, logo bat egin behar zuen ikasketen proiektu gisa, eta Esan Erranekoa berak egitea eskatu genionean, baiezkoa eman zigun.

Irratiaren irudiarekin jolastuz hiruzpalau zirriborro egin ondoren, serioegiak zirelakoan albo batera utzi eta definitiboa aukeratu genuen denon artean. "Euskara oso elementu garrantzitsua

da Esan Erranen, eta hori nolabait sartu nahi nuen. Orduan bururatu zitzaidan bokaten ideia, euskararen sinboloa sartzeko. Beste bi bokata jarri nituen, bata irrati uhinak zituena eta bestea elkarriketen edo hitz egitearen esanahia adierazi nahi zuena. Hauen barruan aurreko logoaren koloreak sartu nituen. Niretzako garrantzitsua zen logoaren koloreak mantentzea, 20 urte baino gehiagoko ibilbidea duen logo bat zen, eta jarraipen bat izatea garrantzitsua da", azaldu digu diseinatzaileak.

Aurretik, gainera, logoarekin bete-betean asmatzeko lan ikaragarria egin zuen: "Prozesuaren hasieran logoa sortzeko inspiratuko nauten gauzak aztertzen ditut: irudiak, argazkiak, sinbologia, antzeko tokien logoak... Esan Erranerako, adibidez, Nafarroako irratiaren logoak aztertu nituen. Hurrengo pausua brifinga egitea izan zen, hau da, Esan Erran hobeto ezagutzeko inkesta moduko bat. Horrela, Esan Erraneko historia eta ibilbidea ezagutu nahi nituen, Ultzama aldea eta bertako biztanleak; eta, noski, logoarekin zer transmititu nahi zenuten jakitea zen beste helburuetako bat. Adibidez, galdetegi horren bidez, irratiaren euskarak duen garrantziaz konturatu nintzen". Irratiari bakarrik ez, irakasleari ere gustatu zitzaion emaitza, 9ko nota lortu baitzuen.

“Miren Arregi:
“Euskara oso
elementu
garrantzitsua da
Esan Erranen, eta
hori nolabait sartu
nahi nuen.””



▲ Orain

• Estudio berria

Irudi berriarekin eman diogu ongi etorria urteari, beraz, eta ez logoari dagokionez bakarrik, erredakzioak ere aurpegia berritu baitu. Alde batetik, zuriz margotu ditugu paretak, argi gehiago sartu dadin. Eta, bestetik, tokia irabazteko erabiltzen ez genituen gauzak atera eta guztia txukundu dugu.



▲ Esan Erraneko logo berria



Enantzatu behar dugu

Nondik hasi ezin asmatuz nabil. Gaurko *Ardo Frexkoari* nondik heldu ez dakit. Buruari astinaldi bat eman beharra dut, baina idor eta antzu ote dagoen nago ni. Hots, ideiak burutatzen ez. Hori bai, gutxienez nora joan nahi dudan edo, gutxienez nondik pasatu behar dudan behintzat badakit, gazte baten eskarioa baitut buruan.

Bai, bai, lehengo egun batean gazte batekin jolasean eta hitz bat atera zitzaidan pentsatu gabe. Eta berak, **-Zer?**

Esanahia azaldu beharra izan nion. Eta ondoren, berriz ere, ahora beste hitz bat eta berak burua altxa eta ez zuela entendatu. Eta ni harrituxe, bietako bat ere ez zekiela eta.

-Hurrengoan Pulunperako idazten dudanean idatziz azalduko ditiat hitz horien esanahia - agindu nion.

-Ongi, ederki, eskertuko dizut.

Eta ni harrituxe, horrelako jarrera bikaineko gazte bat topatzean. Euskaraz ikasi nahi duena, esan nahi dut. Ez ahal da bakarria izanen!

Hitz horietako bat "enantzu" zen. Gauza bat egiteko eta aurrera eramateko abilezia, gauzak azkar eta aise egiteko gaitasuna: "Emakume hori enantzu **handikoa** da" edo "mutil horrek ez du enantzurik, enantzu gabekoa da".

Eta enantzu hitzetik "enantzatu" aditza. Eman dezagun, etxeko lanak egiterakoan enuxu-banuxu ari bazara, festara ez zara iritsiko garaiz eta zure ahizpak oihuka, "enantzatu beharko dun gehiago, ez gaitun eta iritsiko soinua hasterako!" Euskaltzaindiko hiztegian ez dator ongi enantzu hitzaren esanahia. Konpondu beharko dute. Eta enantzatu hitza ez dator.

Beste hitza "induria" da. "Induriarik gabe nago" Induria gutxiko emakumea. Gogoa, indarra, kemena falta zaiona zerbaitengatik, ez ongi gorputzez edo izpirituz ahul! Edo berez horrelakoa dena: induriarik ez du muttiko horrek. (Hizketakoan gurean InduriAren A hori kendu egiten dugu: *indurik gabe nago, induri gutxiko ikaslea...* (A horiek, berez ez genituzke kendu beharko, baina herri hauetako euskaldun

zaharrek ez dituzte gauza guziek ongi erabiltzen. Gehienak bai, baina den-denak ez)

Enantzu eta induria, berriz ere gure ezpainetara ekarri beharreko hitzak. Bai bat eta bai bestea, oso-oso inportanteak. Ez da **zimitza** ez

Hiztegia

Hezi: Educar

Hots: es decir.

Burutatu: zerbait asmatu, zerbait burutara ekarri (Burutazioa: ocurrencia)

-Jolas egin, jolasean ari, jolastu=Yolas egin, yolasean ari, yolastu=solas egin, solasean ari, solastu=hitz egin

Gezurra dirudi **jolastu** beste esanahi batekin nola sartu zaigun eta **jostatu** baztertu duen. Ez dut ulertzen batere. Euskara idatzian horrelako oker gehiago ere sartu zaigu. Eta orain ahozko euskararen ere bai.

Jarrera: disposicion. *Ez esan disposizio txarra eta disposizio ona. Jarrera ona* edo *txarra*, baina jarrera. Zein inportantea den jarrera! Eta onerako, jarrera ona!

Enuxu-banuxu= dudan egon edo ibili harat honat, deus fundamentuzkorik egin gabe.

Zimitza: gazta egiteko moldea (Erderazko chinche ere bada)

Bizkar haga: Etxe bateko teilatuak goiti duen zur lodia, bizkarrean.

Aditza: verbo

Zutabea: columna




Apalategian hiztegi multxo bat. Erdian Azkue handiarena, euskal hiztegi gintzan, oinarritzakoa izan dena. Bere gaztaroko lana izan zen, gerra aurrean. Lan ikaragarria benetan.

dakizula zer den edo **bizkar haga** ez duzula ikasi. Hitz guziak ez dira inportantzia berekoak. **Zimitza** eta **bizkar haga** gutxitan erabaliko dira. Eta gaurko ekarri ditugunak, berriz, inportanteak dira, egunero ez, baina maiz samar erabili beharko genituzkeenak.

Gaurkoan ezin hasiz ibili naiz eta orain ezin bukatuz, beste bi zutabetan ere ez nituzke bukatuko esan beharreko gauzak. Ardo fresko bikainetik hasten garenean, hori da gertatzen, gozo gozo sartzen dela zintzurretik eta aitzina horrela segituko genukeela, dzanga dzanga edanez, atertu gabe.

Eta honekin, hurrengo artio, berriz ere hitz inportanteen kontuak



Jose Maria Iribarrenen Nafarroako hitz bilduma. Meritu handia izan zuen Jose Maria Iribarrenek. Gerra ondorengo lana da hau.

ekarriko baititugu hona. Besterik gabe, izan ongi, eta ozpin kontuak utzi beste baterako.

 **Txurdan**

OHARRA:

-Enantzu eta enantzatu oraintsu artio, Nafarroan, Tafallatik Baztana eta Zangoatik Altsasura bitartean ibiltzen genituen hitzak. Eta gainera, erdaldunek ere erabiltzen zituztenak. (Enanzo eta enanzar)

Jose Maria Iribarrenek **Vocabulario Navarro** hiztegian badakarzki. Kontuz, enantzua **handia** edo **ttikia** izan daiteke, ez asko edo gutxi.

-Induria ere badakar Jose Maria Iribarrenek, baina esnahia habilidad bezala dakar. Gurean ematen diogun esnahia ez da bera. Hurbilekoa bai, baina bera ez.

Zorionak Zorionak !





“Asko eskatzen duen kirola da eskalada, baina bueltan toki eta jende asko ezagutzeko aukera ematen du”

Unibertsitate garaian hasi zen eskalatzen Ander Uria iraizoztarra (Ultzama), eta geroztik, horretan dihardu buru belarri. Oporrak eta denbora libre ia guztia arroka itsatsita ematen duela onartu digu... zerbait berezia izanen du kirol horrek! Ea sekretua kontatzen digun...

Noiz eta zer dela eta hasi zinen eskalatzen?

Gasteizko unibertsitatean kirol ikasketak egiten hasi nintzen, eta ikaskide batzuk eskalatzen aritzen ziren. Haiekin probatzen joan nintzen orduan, eta uste dut lehen momentutik asko gustatu zitzaidala. Rokodromoan hasi nintzen hasieran, baina pixkana, ahal nuenetan arroka joaten hasi nintzen. 2007-2008 ikasturtean izan zen hori. Denbora dezente daramat honetan, beraz. Geroago, Ultzamako beste bi lagunekin –Jese eta Rubenekin-- soka erosi eta Nafarroako eskalada eskoletara joaten hasi ginen. Eskaladarako guneak izaten dira eskola horiek.

Eskalada mota desberdinak daude, ezta? Zein da zuk egiten duzuna?

Bai. Kirol eskalada dago alde batetik, eskalada klasikoa bestetik,

izotz eskalada eta alpinismoa. Ni kirol eskaladan egon naiz oso zentratua. Kirolekoan gehiago bilatzen ditugu gure muga tekniko, fisiko eta taktikoak; eskalada klasikoa, berriz, arriskutsuagoa da: eguraldia aldatu daiteke, paretako seguruak ez dira finkoak eta eskalatzailea doa horiek jartzen... Ni orain arte kirol eskaladan zentratua egon naiz, baina etorkizun batean uste dut eskalada klasikoa ere badela praktikatu dezakedan modalitatea.

Txapelketetan parte hartu izan duzu?

Egia esan, askoz ere gehiago gustatzen zait arroka, eta hori ditut nire erronka nagusiak. Noizbehinka txapelketetan ere parte hartu izan dut, batez ere esperientzia berriak bizitzeko helburuarekin. 2017an hiruzpalau txapelketatan jokatu nuen, adibidez, baina geroztik ez dut gehiagotan parte hartu.

Eta, non eskalatzen duzu, Euskal Herrian barrena, edo hortik kanpo ere bai?

Nafarroan asko Etxaurin eskalatzen dugu, eta Larraona, Itoitz eta inguruko beste leku askotara ere joaten gara. Euskal Herri mailan udan aritzen gara batez ere, itzalak bilatzeko, Nafarroan itzal gutxi dagoelako. Gasteiz aldera eta Errioxara asko jotzen dugu sasoi horretan. Neguan, berriz, Huescara eta Lleidara mugitzen gara... Oporrak ditugunean Espainia osotik mugitzen gara, eta Frantzia eta Turkian ere ibili naiz. Egia esan, opor guztiak eskaladako bidaia egiteko erabiltzen ditut nik!

Zer du berezia kirol honek? Jende asko ari da animatzen azken urteotan...

Kirol exigentea da eskalada, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Baina, horretaz aparte, bidaiatzeko aukera ematen du, naturarekin harremanetan daude, toki desberdinak ezagutzen dituzu, jende asko ere bai... Lagun asko eta onak egin ditut nik eskaladaren bidez!

Gurean ere bada arrokan eskalatze aukerarik

Goldaratz (Imotz) inguruan eskalatze hiru gune daudela kontatu digu Uriak: hornitu zen lehena ‘Goldaratz’ deitutako gunea da, eta bertan eskalatze 10-12 bide desberdin daude. Beste bi lekuak ‘Kaxarna’ eta ‘Goldaratz txiki’ dira



▲ Hamar urte baino gehiago daramatza iraizoztarrak eskaladan



ekoaholkuak

Kontsumo ekologikoa eta logikoa

Maiztasun handiago edo txikiagoarekin etxe guztietan saskia jakiz bete behar izaten dugu. Horretan ere, aukera zabala da eta erabakiak hartu behar: denda txikietan edo handietan, ireki eta zakarrontzira joango diren bilgarriekin edo gabe, garaiko produktu freskoak edo prozesatuak,...

Heldu den hilabeterako proposatutako erronka etiketei dagokiona da. Geroztik eta gehiago ditugu: produktu artisaua dela, Nafarroakoa dela, ekologikoa dela,... Oraingoan azkeneko honi erreparatuko diogu.

Elikagai batek ekologikoa dela dioen etiketa duenean, zer esan nahi du? Elikagai honek bere ekoizpenean zehar ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izaten saiatu dela; besteak beste:

ur kopuruaren erabilera murriztuz, lurraren zein lur-azpiko uren kutsadura ekidinez (erabilitako ongarrien, herbizida edota sendagaien ondorioz,...), etab. Hori hala dela ziurtatzen duen kontrol sistema bat gaitzitearen ondorioz lortzen da etiketa ekologikoa.

Beraz, kontsumitzaile gisa, produktu ekologikoak erosten ditugun aldiero, amalurrarekiko errespetuzko jarduera ekonomikoak sustatzen ditugu. Eta noski, gure etxea zaintzen dugunean, gure burua ere zaintzen ari gara.

Jaki ekologikoen eskaera handituz joan den heinean, hauen eskaria ere handitu da. Ondorioz, munduko herrialde guztietako ekologiko etiketadun produktuak topa ditzakegu dendetan eta horrek mahai gainean galdera jarri digu

berri: ekologikoa al da Zelanda Berriko kiwi ekologikoak Euskal Herrian erostea?

Saski ekologikoa nahi baduzue, logika erabiltzea da giltza: ekologia, bai noski, baina bertakoa eta garaikoa ere bai. Noski, horrek esan nahi du Nafarroako kiwiak jateko garaia orain dela eta udan, garaiko beste fruta fresko eta goxo bat jan beharko dugula.

Aurrerantzean saskia jaki ekologiko zein logikaz bete ezazuela!!!



 **Lurra**

Josean Iturralde, Goldaritzen (Imotz) arrautzak eta ahuntz-gazta ekologikoan ekoizten dituen abeltzaina

"Zergatik ekologikoan? Bada, antzinatek, gure arbasoengandik jasotako kulturarekin jarraitu nahi dudalako, ekoizpen eredu txikian eta estentsiboan, eta herri txikietan lan eginez. Merkatuan, gainera, oso garrantzitsua da zure produktua besteetatik desberdintzea. Nola lortu zure produktua ekoizle konbentzionaletatik, enpresa handietatik edo intentsiboetatik bereiztea? Bada, zigilu bat edukitzea horretarako aukera bat da. Hori gabe ere joan gitezke, baina zigiluak merkatuan desberdintzeko eta zure produktua nolakoa eta nola egina den modu argian azaltzeko balio du".



▲ Josean Iturralde

Virginia Ihaben, Egillorko alaba (Atetz), ekologikoan erosten du Izarpe Kanpinean

"Nire ustez osasuntsuagoak dira, eta lurrari sortzen dizkieten kalteak txikiagoak dira. Planeta, ingurumenaren aldetik, egoera larri batean ikusten dut; eta ez badugu zerbait egiten ez dugu etorkizunik. Baina, munduko beste puntatik badator, elikagai ekologiko batek dexente kutsatu dezake. Beraz, nire iritziz, garrantzitsua da ekologikoa aukeratzea, baina baita tokikoa ere. Dena den, produktu ekologikoak kasu gehienetan garestiagoak dira, eta familia batzuentzat urrun daude".



Munstroak, identifikatu gabeko animaliak eta superpatatak

Normalean, kolaborazio honetan helduendako liburuak gomendatzen ditugu, baina, ez, ez ditugu haurrak ahaztu, eta gaur zakutoan (gogoratu, liburuen kontrabandistak gara, edo horrela sentitzen gara behintzat garai arraro honetan) txikiendako hiru nobedade ekarriko ditugu. Hiru komiki, hain zuzen ere. (6 urtetik aurrerakoendako)

BIGA

Lehenengoa BIGA da, **Roman Pujol eta Vincent Caunena** dira egileak, eta Astiberri argitaletxeak kaleratu du. BIGA da protagonistaren izena eta baita akronimo bat ere: Benetan Identifikatu Gabeko Animalia. Hainbat istorio motz biltzen dira liburu honetan, denak protagonista berarekin: BIGA. Eta nor da BIGA ? Ba, ez dakigu oso ongi. Animalia bat da eta animalien eskola batera joaten da. Bere ikaskideak jirafak, krokodiloak eta hartzak dira, baina BIGAk ez du haietariko inoren antzik, ez da sugea, ez da arraina... Eta hori gutxi balitz, superboteak edo ahalmen miragarriak ditu. Eta, noski, horrek guztiak jakinmina pizten du bere ikaskideen artean. Oso dibertigarria da, benetan, eta irakurtzeko oso erraza... Nor ez da sentitu noizbait arraro, arrotz, txakur berde, benetan identifikatu gabeko animalia?



TIGREAREN AMESGAIZTOAREN KONTRA

Emily Tetryrena da bigarren komiki hau, eta hau ere Astiberri argitaratua. Kasu honetan Tigre, protagonista, beste animalia bat da, baina honetan bai, identifikatua. Bera bai, baina bere ohe azpian dagoena ez hainbeste. Tigre horrek bere gurasoei kontatzen die ohe azpian munstro bat daukala (denok txikitan imajinatu dugu halako zerbait, ezta?), eta Tigreren gurasoek ez dute sinesten, batez ere Tigre txikia ez dagoelako beldurtuta, alderantziz, pozik dago munstroak amesgaiztoak uxatzen laguntzen diolako. Munstro hori benetakoa den ala ez jakiteko, lagunok, komikia irakurri beharko duzue!



SUPERPATATA

Goian esan dugu BIGAk superboteak zituela, eta orain aipatuko dugun liburuan beste superhero bat egonen da, Superpatata, hain zuzen ere. Nik, benetan, ez dakit nola deskribatu, beraz kontrazala idatziko dut:

Maltzur doktore gaiztoak Supermax, ilerik apainena duen justiziaren defendatzailea, patata bihurtu du. Eta, hori gutxi balitz, aurre egiten dion edonor patata bihurtzeko mehatxu egin du. Maltzur doktoreak ez daki, ordea, Supermax, orain patata bat den arren, ez dela tuberkulu soila. Superpatata da.

Erakargarria, ezta? Superpatatak arrakasta handia lortu omen du haur literaturan eta hau da bere lehenengo abentura, beraz, ikusiko dugu gure artean ere nagusituko ote den. Horrela bada, eskatuko ditugu bere abentura gehiago. Beraz, zatozte liburutegira zuen Superpatataren bila eta mintzatuko gara, horretaz, munstroez, identifikatu gabeko animaliez, piratez, detektibeez... denatatik daukagu liburutegian.



MUSIKA, ARGAZKIGINTZA ETA LIBURUAK (OTSAILEKO OSTIRAL KULTURALEN PROGRAMAZIOA)

Bi kontzertu, dokumental bat, liburu aurkezpen bat... Otsaila urteko hilabeterik motzena bada ere, ekimen kulturelez betea dator. Hasiko gara, otsailaren 5ean zinema eta argazkigintza batera baitatoz.



LACALLE

Joxe Lacalleren argazkiak zintzilikatuko dira otsailean Gizarte Etxeko sarreran. Lacalle argazkilari ospetsua da, behintzat Iruñerrian eta Nafarroan, Gara eta Egunkaria egunkarietan lan egin zuelako, eta beti zebilelako kalean, saltsa guztietan. Joxe bera etorriko da bere argazkiak komentatzera eta, gainera, egun horretan berari buruz egin duten dokumentala ikusiko dugu. Egileak Virginia Senosiain eta Juan Luis Napal dira, hauek ere gure artean ezagunak (hain zuzen, duela gutxi egon ziren Larraintzarren beste dokumental bat aurkezten: Florecica). Dokumental honetan Joxe Lacalleren bizitza kontatzen da. Bere oroitzapenak, esperientziak, emozioak, sentsazioak; bere argazkigintzaren ibilbidea eta Lacalle tabernaren jabea izan zen garaia (lehergai bat jarri zioten ultraeskuinekoek tabernan ikurriña jartzegatik); bere biziko borroka, bere indarra, bere hurbiltasuna, bere goxotasuna...



MARC BADAL

Hurrengo ostiralean, 12arekin, **Mac Badal etorriko da liburu bat aurkeztera:** Vidas a la intemperie. Marc Badalek dio nekazal herriek inoiz ez dutela beren historia idatzi, beti beste batzuk izan dira landa-ingurua nolakoa den kontatu digutenak. Vidas a la intemperie topiko horietatik egindako ibilbidea da. Eta Badal arlo honetan oso ahots edo egile famatua da, benetan. Ez galdu!



ALBERTO RODRÍGUEZ PURROY

19an Alberto Rodríguez Purroyk, Iruñeko kantautoreak, bere "Instantánea" bakarkako lehen disko profesionala aurkeztuko digu. Kontzertu komentatua izanen da, gainera, hau da, egileak bere unibertso sortzaile, poetiko eta musikari buruz hainbat azalpean edo sekretu emanen dizkigu... Aukera paragabea, beraz, musikaren eta sorkuntzaren mundua barnetik ezagutzeko.



ITZIAR OLAGUE, NAHIA GARAIKOETXEA ETA MAIALEN AIZPUN

Ez da Rodríguez Purroyrena izanen kontzertua bakarra, hurrengo astean, **otsailaren 26an, Itziar Olague (Lizaso) etorriko baita. Nahia Garaikoetxeak eta Maialaen Aizpunek lagunduta,** akustikoan joko dituzte euskal musikako abestiak. Bi emanalditan eskainiko digute kontzertua: 18:00etan eta 20:00etan. Sarrerak email honetan erreserbatu behar dira: liburutegia@ultzama.es. Eta, adi! Lerro hauek idatzi ditugun unean oso sarrera gutxi geratzen dira eta!

Gogoratu nahi ditugu, bukatzeko, kultur ekimenak egiten jarraitu nahi badugu bete behar ditugun neurriak eta protokoloak: eskuak garbitu aretora sartu baino lehen, maskarilla erabili momentuoro, distantzia mantendu eserlekuetan -elkarrekin bizi direnak izan ezik-, multzoak saihestu sartu



Patxi Irurzun
Ultzamako liburutegia

2020ko abenduan

2020ko abenduan gure alderdian izan ziren jaiotzak eta heriotzak:

Sortzeak:

IMOTZ Zarrantz

Eider Yaben Zubieta, **azaroaren 25ean** jaio zen **Etxeberriko** bordan; Juan Mari eta Elenaren alaba.

“ Zorionak gurasoei ”



▲ Eider dugu gure ttikia. Eta Anne bere ahizpa. Gurasoak, berriz, Juan Mari eta Elena



▲ Suarbeko Hegoa gurasoekin

ULTZAMA Suarbe

Hegoa Altuna Hualde, abenduaren lehenean sortu zen **Polloneko** bordan. Gurasoak: Unai eta Laida.

Heriotzak:

ANUE Olague

Juan Gubia Etxebertz, Juanxo, **Manexeneko Baltegi** nagusia, abenduaren lehenean hil zen, 69 urtetan.



▲ Juanxo Gubia

Juan Eleta Larraiotz, abenduaren 19an hil zen, 92 urtetan.



▲ Juan Eleta

ATETZ Beratsain

Miguel Maria Gerendiain Eritze, abenduaren 10ean hil zen, 79 urtetan. **Azpikoetxe** semea.

BASABURUA Gartzaron

Joaquina Telletxea Oskotz, abenduaren 15ean hil zen 88 urtetan. **Joantsantzeneko** etxekoandrea.



Joaquina Telletxea

Ihaben

Jesus Maria Garcia Olias, abenduaren 23an hil zen 73 urtetan. **Ihabengo bentako** nagusia



▲ Jesus Mari Garcia

Itsaso

Maria Micaela (Maritxu) Zia Goñi, abenduaren 25ean hil zen, 85 urtetan. **Goikoxukaldeko** etxekoandrea.



▲ Maritxu Zia

ODIETA Latasa

Angela Huarte Barberena, abenduaren 13ean hil zen 87 urtetan. **Etxeberriko** etxekoandrea.



▲ Angela Huarte

ULTZAMA Iraizotz

Paulina Nuin Ezkarai, abenduaren 13an hil zen 87 urtetan. **Eskolazarreko** etxekoandrea.



▲ Paulina Nuin

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Urte berri, logo berri!

**2021 urte zoriontsua
opa dizuegu denoi!**



Esan Erran IRRATIA

107.9 FM

Esan erranen, irudi berriarekin hasiko dugu urtea...

Egilea: Miren Arregi